

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Bost etxebizitza eta sotoa lote banaezin bakar batean besterentzea. Udal hau haien titularra da Antepara kaleko 10. zenbakian dagoen higiezinan

Udala da Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorren 1. epigrafean udal lurzoru ondare gisa alta emanda dauden eta erregistroan inskribatuta dauden etxebizitza hauen jabari osoaren titularra:

Beheko solairuko ezkerreko etxebizitza. 53,46 m²-ko azalera eraikia du, eta 596000110000010007CP katastro-erreferentzia.

Lehenengo solairuko eskuineko etxebizitza. 53,46 m²-ko azalera eraikia du, eta 596000110000010002FP katastro-erreferentzia.

Lehenengo solairuko ezkerreko etxebizitza. 53,16 m²-ko azalera eraikia du, eta 596000110000010001DP katastro-erreferentzia.

Bigarren solairuko ezkerreko etxebizitza. 53,16 m²-ko azalera eraikia du, eta 596000110000010003HP katastro-erreferentzia.

Hirugarren solairuko ezkerreko etxebizitza. 53,16 m²-ko azalera eraikia du, eta 596000110000010005LP katastro-erreferentzia.

Sotoko solairuko lokala. 90,77 m²-ko azalera eraikia du, eta 596000110000010009GP eta 596000110000010010EP katastro-erreferentziak.

Ondasun horiek lote banaezin bakarrean besterentzeko baldintza-agiria onestea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko ekainaren 27an. Oinarrizko prezioa, lizitatzailerek gora eginez hobetu ahalko duten lizitazio-tasa, hirurehun eta hirurogeita lau mila bederatziehun eta hogeita lau euro eta 8 zentimo da (364.924,08 euro). Kopuru horretan ez daude sartuta zergak.

Dosierra Ogasun Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan aztertu ahalko da (Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25), aldeztu aurretik hitzordua eskatuta, eskaintzak aurkezteko egunaren bezperara arte, bulegoko jendaurreko ordutegian.

Baldintza-agiria hemen dago kontsultatu nahi duenarentzat: <https://v-g.eus/cubo10>.

Vitoria-Gasteizko Udalen erregistro nagusian —Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, beheko 01008 Vitoria-Gasteiz— aurkeztu beharko dira proposamenak, 8:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera, edo postaz, urriaren 12ko 1098/2001 LEDaren 80.4 artikuluan xedatutakoaren arabera; 2025eko irailaren 15a izango da azken eguna.

Postaz igorri gero, bidalketa zein egunetan egin den justifikatu beharko du lehiatzaileak, eta bidalketa egunean bertan eskaintza egin izana jakinarazi deialdia egin duen organoari, posta elektronikoz (ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org).

Bi eskakizun horiek bete ezean, eta proposamena iragarkian adierazitako epea bukatzen den eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen badu deialdia egiten duen organoak, ez da onartuko. Edonola ere, adierazitako datatik hamar egun natural igarotzen direnean proposamena iritsi ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

Aurkezteko epea bukatzen delarik, balorazio-batzordea eratuko da, zeinak gaitasun-beteki-zunak betetzen diren egiaztatuko baitu, eta lizitatzailleen proposamenak daramatzaten gutun-azalak irekitzeko ekitaldi publikoaren eguna eta ordua zehaztuko (<https://v-g.eus/cubo10> helbidetan argitaratuko da).

Batzordeak proposamenak aztertuko ditu, akta jasoko du, eta adjudikazio-proposamena helaraziko dio Tokiko Gobernu Batzarrari, onets dezan.

Adjudikaziodunak hemezortzi mila berrehun eta berrogeita sei euro eta 20 zentimoko bermea (18.246,20 euro) jarri beharko du 10 egun balioduneko epean, adjudikazio jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatuta.

Adjudikaziodunaren kontura joango dira eskualdatzeak eragingo dituen gastu eta zerga guztiak: lizitazio-iragarkia ALHAOn argitaratzeko gastuak, notario eta erregistroari dagozkienak, zergak eta gainerakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko ekainaren 30ean

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO